



2020. URTEKO EGUTEGIA EGITEKO ARGAZKI LEHIAKETA

Urtero bezala Olaberriko Udalak, 2020ean ere egutegia kaleratuko du. Aurtengoan, aurreko urtean moduan, olaberriarren artean argazki lehiaketa burutuko da. Bertan sarituriko argazkiek osatuko dutelarik 2020.urteko egutegia.

Lehiaketaren oinarriak

- Olaberriko herritarrek parte har dezakete.
- Lehiaketak bi kategoria izango ditu: 18 urtez azpikoak eta gorakoak.
- Argazki guztiak Olaberrian eginak izan behar dira.
- Txuri-Beltzean edo koloretan eginiko argazkiak aurkez litezke.
- Pertsonako gehienez 4 argazki aurkez litezke, hauek aurrez publikatu gabeak eta beste lehiaketetan saritu gabeak izan behar dutelarik.
- Formatua: Horizontalean eginiko argazkiak izan behar dira. Paperrean aurkezturiko argazkiek, behin digitalizatuta, erresoluzio egokia izan beharko dute.
- Argazkian pertsonak agertzen diren kasuetan, beraien irudia erabiltzeko baimena sinatuta aurkeztea beharrezkoa izango da.
- Argazkiak aurkezteko azken eguna: **2019ko urriaren 4a izango da.**

Izen ematea eta argazkien bidalketa

- Online: kultura@olaberria.eus helbidera bidali.

GAIA: Argazki lehiaketa 2019 (+18 edo -18)

Argazkiekin bat honako datuak dituen dokumentua bidali beharko da:

Izen abizenak

NAN zenbakia,

Helbidea

Telefono zenbakia

E-maila

Argazki bakoitzak izenburua eta deskribapen labur bat izan behar ditu.

- Udaletxean entregatuta: 2 sobre entregatu beharko dira:

Lehenean: argazkiak (digitalean edo paperrean) izenburuekin eta bakoitzaren deskribapenarekin.

Bigarreanean: parte hartzailearen datu pertsonalak.

Argazkien erabileraren inguruko eskubideak

Saritutako lanak Olaberriko Udalaren esku geratuko dira eta argitaratzeko eskubidea izango du.

Sariak eta Sari banaketa

Aurkezturiko lan guztietatik hamahiru aukeratuko dira. Sarituriko egile bakoitzak Olaberriko produktuez osaturiko saski bat jasoko du. Sari banaketa 2019ko azaroaren 1eko Gaztaina janaren aurretik egingo da.